

# Olgetan-Benetan: Umezaroaren Lexikoa Bizkaian (II)

Iñaki Gaminde

Euskal Herriko Unibertsitatea

Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila  
igaminde@bips.bi.ehu.es

## Abstract

Following the path of the previous one, the author will present some materials related to the children's lexicon. This article shows a part of the first subject, namely, materials related to the games played with adults

## Laburpena

Artikulu honetan, aurrekoaren bide beretik, Umezaroaren lexikoaren gainean jaso ditugun materialak ematen segitzen dugu. Materialak alfabetikoki barik gaika ematea erabaki zenez gero, oraingoan nagusiekin egiteko olgetekin egingo dugu aurrera.

**Keywords:** Lexicography, Dialectology, Children games.

**Gako hitzak:** Lexikografia, Dialektologia, Umeen olgetak.

## 1. Nagusiekin egitekoak (jarraipena)

Nagusiak, bere hankak ahume eginda jesarrita, sarritan hartzen du umea bere oinean iztertolaka edo hankurkiluka gora eta behera erabiltzeko. Egiteko hau adierazteko ondokoren bat erabiltzen da:

**anka eraiñe** (Errigoiti) [**hanka eragina**]

**arre-arre** (Bakio), **arre-arre putxiko** (Mañaria) [**arre-arre putxiko**]

**arrebolante** (Zornotza) [**arrebolante**]

**arretriko triko** (Ibarrangelu) [**arretriko triko**]

**astun ganian** (Lekeitio) [**astoaren gainean**]

**isterkuluke** (Elantxobe) [**iztertolaka**]

**saldi ganian**: (Lekeitio) [**zaldi gainean**]

**txinkirrinki soñue** (Fika) [**txinkirrinki soinua**]

"Eingu dxantzan txinkirrinki soñue eta imiñi orren ganian (**Fika**)" (Egingo dugu dantzan txinkirrinki soinua eta ipini horren gainean)

**txikitin-txikitin** (Morga) [**txikitin-txikitin**]

**txin-txan** (Arrieta) [**txin-txan**]

**txinbili-txanbolo** (Arteaga) [**txinbili-txanbolo**]

**txitan** (Gatika) [**txitan**]

Hau egiten den artean kantak edo errexitatu aproposak egiten zaizkio umeari. Umeak berak ikasten ditu errexitatuak geroago.

## ARRE-ARRE MANDAKO

Arre arre mandako  
bier Tolosarako  
etzi Iruñerako  
andik ser ekarriko  
sapata ta garriko  
**(Jatabe)**

Arri arri mandako  
bidixer Tolosarako  
etzi () Iruñarako  
da andik ser ekarriko  
sapata ta gerriko  
**(Abadiño)**

Arre arre mandako  
bidixer Tolosarako  
etzi Gernikaroko  
sapata ta gerriko  
**(Iurreta)**

Arre-arre mandako  
bihar Tolosarako  
andik zer ekarriko  
zapata ta gerriko  
Norentzako?  
Josu ta Nerentzako  
**(Amoroto)**

Arre arre mandako  
bier Urdiñerako  
andi ser ekarriko  
sapata ta garriko  
**(Derio)**

Arre arre mandako  
bier Tolosaroko  
etzi Panplonaroko  
andik ser ekarriko?  
sapata eta garriko  
**(Lezama)**

Arre-arre mandako  
bihar Urduñarako  
handik zer ekarriko  
zapatak eta garriko  
**(Orozko)**

Arre arre mandako  
biger durungorako,  
andik ser ekarriko  
sapata eta garriko  
**(Galdakao)**

Arre arre mandako  
biar Iruñarako  
etzi Tolosarako  
andik ser ekarriko  
sapatak eta garriko  
**(Dima)**

Arre arre mandako  
biar Gasteilarako  
andik ekarrikosku  
ogi te gastai asko  
**(Zeanuri)**

Arre-arre mandako  
bihar Iruñarako  
etzi Tolosarako  
handik zer ekarriko  
zapatak eta garriko  
**(Zeanuri)**

Arre arre mandako  
biger Urdiñera  
andi ser ekarriko  
sapata ta garriko  
**(Zeberio)**

Arre, arre mandako  
bier Tolosarako  
andi ser ekarriko  
sapatak eta garriko  
**(Mungia)**

## ARRE-ARRE ASTO BARRABANA

Arre, arre, arre  
iso, iso, iso  
asto barrabana  
okerreko lekutik  
nora naroana  
andixik andixe  
Sornotzatik gora  
Mañeritxik gora  
San Antoniñora  
**(Bakio)**

Arre arre  
asto barrabana  
okerreko bidetik  
nora daroana  
**(Arrieta)**

Arre arre tiriko  
asto berenoa  
okerreko bidetik  
segaitik daroa  
**(Arrieta)**

Arre arre  
asto barrabana  
kontrako lekuti  
nora naroana  
**(Derio)**

Arre triko-triko  
asto berenue  
okerreko bidetatik  
sek ete darue  
**(Ereño)**

Arre-arre borrikito  
asto barrabana  
okerreko lekuetatik  
nora naroana?  
**(Gatika, Laukiz)**

Arre borrikito  
asto barrabana  
okerreko lekutati  
nora naroana  
**(Erandio)**

Arre arre arre  
asto barrabana  
okerreko lekutati  
nora nayoana  
**(Leioa)**

### (Gatika)

Arre borrekin  
borrekin, borrekin  
asto barrabana  
okerreko lekuti  
okerreko lekuti  
nora i ete yona  
**(Jatabe)**

Arre arre  
ausoak  
in sedien barre  
**(Urduliz)**

### DIN DAN BERROA

Arre borrikito  
asto barrabana  
okerreko lekurik  
nora naroana  
**(Lezama)**

Din dan berroa  
saldi sarran erroa  
**(Arrieta, Mungia)**

Astotxue txikitxua  
orren belekua  
okerreko bidetik  
sek ete darua  
**(Otxandio)**

### TXINKIRRINKI SOINUA

Arre arre arre  
asto barrabana  
okerreko lekutik  
nora naroana  
**(Zamudio)**

Txintxirrinki soñue  
txinbilinerako  
sapatatxu barridxek  
udebarrireko  
**(Fika)**

Arre, arre, arre  
asto barrabana  
kontrako lekutik  
nora naroana  
**(Zamudio)**

Errezitatuak, txikerretako bertsotxoak eta, besterik ezean, testularitzaren esparruan koka daitezkeen esaldi errimatuak erabiltzen dira. Ondokoan "eguzkia" agertzen da.

Eguskie badoa  
beren amagana  
bier etorriko da  
denpora ona bada  
**(Dima)**

Arre, arre, arre  
asto barrabana  
okerreko lekuetatik  
nora naroana  
**(Mungia)**

Eguskidxe badoa  
bere amagana  
bidixer etorriko da  
denpora ona bada  
**(Forua)**

Arre arre, ixo ixo  
asto berenoa  
okerreko bidetik  
sek ete daroa  
**(Zeberio)**

Euskidxa dxun da  
bere amagana  
bidxar etorriko da  
denpora ona bada  
**(Lekeitio)**

Asto bat etorri de Durango aldeti  
uskerra dariola atzeko suloti  
arre kaballito, asto berenoa  
okerreko lekuti sek ete daroa  
**(Galdakao: Usansolo)**

Eguskie yoan da  
bere amagana  
biar etorriko da  
denpora ona bada  
**(Lezama)**

### BAZTARRAK

Arre arre  
bastarrak  
in sedien barre

Eguskie yoan da  
bere amagana  
bier etorriko da  
denpora ona bada  
**(Zamudio)**

Eguskie badoa  
bere amagana  
bier etorriko da  
denpora ona bada  
**(Zeanuri)**

Eguski santxu bet  
mundun bedeinketu  
eta serun alabadu  
esaittes alaxegana lastana  
narres lotzatute geratu  
**(Barrika)**

Leku gehienetan bokalekin egiten izan den kantutxo baten bertsioak ematen ditugu jarraian; leku batzuetan kantu moduan erabiltzen da eta beste leku batzuetan errexitatu moduan. Normalean umeek eurek egiten izan dute.

A, e, i, o, u  
ama beridxendie bidogu  
lau arrutze ta koipetzu  
**(Arrieta)**

A, e, i, o, u,  
ama, berinya bear du,  
arto bero ta koipetzu,  
au de mutillen kakatzu  
**(Mungia)**

A, e, i, o, u  
ama merixendie biogu  
bata jan dou  
eta bestie biogu  
**(Etxebarria)**

A, e, i, o, u  
ama merixendia biogu  
**(Ondarroa)**

A, e, i, o, u  
ama meridxendie biogu  
arrotza bi ta koipetzu  
**(Ereño)**

A, e, i, o, u  
ama beridxendia preste du  
talo bi tte koipetzu  
**(Fika)**

A, e, i, o, u,  
ama meriendie gure du  
talo bi tte koipetzu

A, e, i, o, u  
ama meridxendi bidogu  
arrotzatxu batas koipetzu  
**(Ibarrangelu)**

A, e, i, o, u,  
ama meridxendie biogu  
arrotza bi tte koipetzu  
**(Iurreta)**

A, e, i, o, u  
ama meriendia biadu,  
arrotzatxu bet eta koipetzu  
**(Larrabetzu)**

A, e, i, o, u  
ama beriendia biagu  
arrutzetxu bet  
eta koipetzu  
**(Lezama)**

A e i o u  
ama meriendea biadu  
arrutze bi te koipetzu  
**(Usansolo)**

A, e, i, o, u  
ama meriendea biu,  
arrontza bi eta koipetzu  
**(Zeberio)**

Kukurruku ser biosu  
arrotza bi tte koipetzu  
**(Otxandio)**

A, e, i, o, u  
ama beridxendie biogu  
bat dxan dou te  
bestie nai dogu  
**(Ispaster)**

Zenbakiak aipatzeko eta beharbada ikastekotan egiten izan direnak mota desberdinakoak izanik ere segituan aurkezten ditugu hemen:

**BAT, BI, HIRU ETA LAU (I)**  
Bat eta bi tte iru ta lau  
Txomiñek andrie falta dau  
Txomiñek deko dendie  
sagar usteles betie  
arixek saltzen doyela

bidien topau dau andrie  
**(Abadiño)**

amar, bederatzi  
sortzi, saspi, sei, bost  
lau, iru, bi te bat  
**(Axangiz)**

Bat erremata pun pa  
txintxiliñ mota  
mutilddute pa te te te te  
buterrik bute pa te te te te  
arrebata takue  
altximini arrematxi  
**(Abadiño)**

Bat, bi, iru, lau  
Txomiñek andrie falta dau  
txomiñek deuko dendie  
sagar ustelles betie  
**(Aulesti)**

Bat, bi, iru, lau  
Txomiñek andrie falta dau  
Txomiñe teko kaixie  
sagar ustelles betie  
**(Elantxobe)**

Bat, bi, iru, lau  
Txomiñek andria falta dau  
Txomiñe tekola dendia  
sagar ustelles betia  
Txomiñen dendara basuas  
dxoko saítxula masuas  
**(Elantxobe)**

Bat, bi, iru te lau  
amar, amalau  
aittek saldu nau  
amak erosi nau  
Bilboko alkate sarrak  
kartzelan sartu nau  
**(Otxandio)**

Bat, bi, iru, lau  
bost, sei, saspi, sortzi  
bederatzi, amar  
amaika, amabi  
amairu, amalau  
amabost, amasei  
amasaspi, amasortzi  
emeretzi, ogei  
ogei, emeretzi  
amasortzi, amasaspi  
amasei, amabost  
amalau, amairu  
amabi, amaika  
amar, bederatzi  
sortz, saspi, sei, bost  
lau, iru, bi eta bat  
**(Zeanuri)**

#### **BAT PATXI PARRAT**

Bat Matxin parrat  
Bi Matxin ipurdi  
Iru korta bete miru  
Lau otzuek jango al au  
Bost klost  
Sei korta bete sei  
Saspi korta bete aspi  
Sortzi arkondara bete sorri txiki  
Beratzi katuei narrue eratzi  
Amar katue mar mar  
Amaika katue lukainka  
Amabi katuek bustenien kana bi  
**(Abadiño)**

Bat Matxin parrat  
bi Matxin ipurdi  
iru kolko bete diru  
lau sardiña makalau  
sei korta bete bei  
saspi korta bete aspi  
bederatzi jo ta eratzi  
amar katue marmar  
amaike lukainke  
amabi altzo bete madari  
**(Amoroto)**

Bat Matxin barrabas  
Bi Matxin ipurdi  
iru kolko bete diru  
lau ikomelau  
bost ainka motz  
sei ainka sei

#### **BAT, BI, HIRU ETA LAU (II)**

Bat, bi, iru, lau  
bost, sei, saspi, sortzi  
bederatzi, amar  
amaika, amabi  
amairu, amalau  
amabost, amasei  
amasaspi, amasortzi  
emeretzi, ogei  
ogei, ogei, emeretzi  
amasortzi, amasaspi  
amasei, amabost  
amalau, amairu  
amabi, amaike  
amar, bederatzi  
sortz, saspi, sei, bost  
lau, iru, bi eta bat  
**(Axangiz)**

saspi aspi  
sortzi neskiaren kortxi  
beatzi jo eta eratzi  
amar katuaren mamar  
amaika txakurran bustena tente  
amabi txakurran bustena kalabi  
**(Ondarroa)**

Bat, Matxin parrat  
bi, Matxin eperdi  
iru, kolko bete diru  
lau, sardiña makalau  
bost, koskotien kosk  
**(Arteaga)**

Bat Patxi parrat  
bi eperdi bi  
iru kolko bete diru  
lau andreak galdu nau  
bost kokotean kost  
sei, arka bete sei  
saspi kolko bete baspi  
sortzi etze bete sorki  
bederatzi katue narru eratzi  
amar katue marmar  
amaka katue gauero kaka  
amabi, altzo bete madari  
**(Bakio)**

Bat Matxin parrat  
bi Matxin eperdi  
iru kolko bete diru  
lau andreak galdu nau  
bost topa beako nau  
sei kolko bete bei  
saspi kolko bete baspi

--  
bederatzi katueri narrue eratzi  
amar katue marmar  
**(Dima)**

Bat Matxi parrat  
bi Matxi porrot  
iru kolko bete diru  
lau andreak galdu nau  
bost topa beako nau  
sei korta bete bei  
saspi katillu bete baspi

--  
bederatzi katueri narrue eratzi  
amar marmar  
**(Dima)**

Bat Matxin parrat  
bi Matxin eperdi  
iru esko bete diru

lau sardiña bakalau  
**(Elantxobe)**

Bat Matxin parrat  
bi Matxin ipurdi  
iru kolko bete diru  
lau sagusarrak jango al au  
bost koskotien kosk  
sei korta bete bei  
saspi katuai sapi  
bedeatzi jo burun eratzi  
amar katue marmar  
**(Etxebarria)**

Bat Matxin parrat  
bi Matxin bere bi  
iru kolko bete diru  
lau sardiña bakalau  
bost prost  
sei esin esarri nei  
saspi kolko bete baspi  
**(Fika)**

Bat Matxin parrat  
bi matxin eperdi  
iru kolko bete diru  
lau sardiña bakalau  
bost koskotien kosk  
sei arkanak sei  
saspi korta bete baspi  
sortzi txakur bete sorri  
bederatzi katueri narru eratzi  
amar katueri marmar  
amaika kako bete lukainke  
amabi altzo bete madari  
**(Forua)**

Bat Matxin parrat  
bi Matxin eperdi  
iru ilbete miru  
lau sardiña makalau  
bost kokotien kosk  
sei prakak nasei  
saspi korta bete aspi  
sortzi txapel bete sorri  
bederatzi katueri narrue eratzi  
amar katueri mar-mar  
amaika kako bete lukainka  
amabi altzo bete madari  
**(Forua)**

Bat bat Batxi parrat  
bi, bi Batxi eperdi  
iru, iru, iru Batxi diru  
lau, lau sardiña makalau  
bost bost gure katue porros porros  
sei sei nik esiñ asi nei

**(Fruiz)**

Bat Patxi parrat  
 bi Patxi eperdi  
 iru, kolko bete diru  
 lau andreak galdu nau  
 bost ardiek kosk kosk  
 sei kolko bete sei  
 saspi kolko bete baspi  
 sortzi kolko bete sorri  
 bederatzi katueri narru eratzi  
 amar katuek kamaran marmar  
 amaka Mateok goyan kaka  
 amabi katuek bustenen kana bi

**(Gatika)**

Bat Matxin parrat  
 bi Matxin eperdi  
 iru kolko bete diru  
 lau sardiña makallau  
 bost koskotian kosk

**(Ibarrangelu)**

Bat Patxin parrat  
 bi Patxin eperdi  
 iru kolkoa bete diru  
 lau amak saldu nau  
 bost kosk kosk  
 sei korta bete bei  
 saspi kolkoa bete baspi  
 sortzi otara bete sorki  
 ---  
 amar katue marmar

**(Igorre)**

Bat Matxin parrat  
 bi Matxin eperdi  
 iru kolko bete diru  
 lau sardina bakalau  
 bost kokotian kosk  
 sei korta bete bei

-

-

bederatzi katueri narrue eratzi  
 amar katue marmar

**(Larrabetzu)**

Bat matxin parrat  
 bi matxin eperdi  
 iru kolko bete diru  
 lau sardina y bakalau  
 bost kolko bete klos  
 sei korta bete bei  
 saspi kolko bete baspi  
 sortzi katueri narru eratzi  
 bederatzi katueri narru eratzi, sortzi estakit, da  
 amar katue marmar

**(Larrabetzu)**

Bat Patxi parrat  
 bi Patxi eperdi  
 iru Patxi serrajeru  
 lau andreak galdu nau  
 bost pospoliñek post  
 sei nik esiñ asi nei  
 saspi esku bete baspi  
 sortzi kolko bete sorri  
 bederatzi katuri narru eratzi  
 amar katuk itten deu marmar  
 amaka katuk kamaran kaka  
 amabi katuk bustenen kana bi  
 amairu gorta bete miru

**(Laukiz)**

Bat, Patxi parrat  
 bi, patxi eperdi  
 iru, kolko bete diru  
 sei gorta bete sei  
 bederatzi katun narru eratzi  
 amar katuk iten deu marmar

**(Leioa)**

Bat Patxi parrat  
 bi Patxi eperdi  
 iru kolko bete diru  
 lau andreak galdu nau  
 sei esiñ asi nei  
 saspi kolko bete baspi  
 sortzi kolko bete sorri  
 bederatzi katueri narru eratzi  
 amar katu marmar  
 amaka sure amak goyan kaka  
 amabi aitxek eperdin amari

**(Lemoiz)**

Bat batxi parrat  
 bi batxin eperdi  
 iru kolko bete diru  
 lau andreak galdu nau  
 bost kokotean klosk  
 sei gorta bete basabe  
 saspi burue bete baspi  
 sortzi burue bete sorri  
 bederatzi katueri narrue eratzi  
 amar katue marmar

**(Lezama)**

Bat batxi parrat  
 bi batxi eperdi  
 iru kolko bete diru  
 lau andriak galdu nau  
 -  
 saspi kolko bete baspi

sortzi kolko bete sorri  
bederatzi katueri narru eratzi  
amar katue marmar  
amaka antzarrak gora kaka  
amabi amaka altzodi eta madari  
**(Mungia)**

Bat, matxin parrat  
bi matxin eperdi  
iru kolkoa bete diru  
lau sardiñe makalau  
bost koskotien kosk  
ta sei praka nasei  
**(Muxika)**

Bat, Matxin parrat  
bi, Matxin eperdi  
iru, kolko bete diru  
lau, sardiña bakalau  
bost koskotien kosk  
sei frakak nasei  
**(Nabarniz)**

Bat errondan ibili  
bi enas ondo ibili  
iru kolko bete diru  
lau andreak galdu nau  
bost kokotean kosk  
sei erre ta yalgi  
saspi kolko bete baspi  
sortzi kolko bete sorri  
bederatzi katuen narrue eratzi  
amar katuek marmar  
amaka katuen kaka  
amabi mosueri kana bi  
**(Zamudio)**

Bat Matxipar bat  
bi Matxipar bi  
iru kolko bete diru  
lau sardina bakalau  
**(Zamudio)**

Bat Matxin parrat  
bi Matxin eperdi  
iru kolko bete diru  
lau andrea falta dau  
bost kokotean klosk  
sei kolko bete sei  
saspi kolko bete baspi  
sortzi kolko bete sorri  
bederatzi gure katueri narrue eratzi  
amar gure katue marmar  
amaika gure katuek amari altzoan kaka  
**(Zeanuri)**

Bat Matxin parrat

bi Matxin eperdi  
iru kolko bete diru  
lau andrea falta dau  
bost topau beako dau  
sei korta bete bei  
saspi plater bete baspi  
sortzi plater bete sorri  
bederatzi katueri narrue eratzi  
amar katue marmar  
**(Zeanuri)**

Bat Matxin parrat  
bi, Matxin eperdi  
iru, Manuel diru  
lau, andreak galdu nau  
bost, kokotean klosk  
sei, korta bete bei  
saspi, korta bete baspi  
sortzi, kolko bete sorri  
bederatzi ausoko katueri narru eratzi  
amar, katue kamaran marmar  
amaka katuek kaka  
amabi katuek goyen buelta bi  
**(Zeberio)**

Bat Matxin parrat  
Bi Matxin eperdi  
Iru kolko bete diru  
**(Zornotza)**

Bat Matxin Parrat  
Bi Matxin eperdi  
Iru kolko bete diru  
Lau sagusarrak dxango al dau  
Bost eldu kataploust  
Sei korta bete bei  
Amar marmar  
**(Ispaster)**

Ondokoak esakuneak besterik ez dira. Umeak tutulunberde egin edo oso-osoan behera jausi eta min hartu duenean, esate baterako, kontsolatzeko eta mina arintzen laguntzeko, kolpea edo zauritxoa hainbestekoa ez dela izan adierazteko "lamaridxeen pupu" esaten da Bermeon eta garaikoetan honakoak:

Mentzameko dxangoikuk  
dxakingo baleke  
etorri eta osatu  
eingo lekitzu  
**(Elantxobe)**

Txakur txiker baten pupu  
eta lau marin trapu  
**(Gatika)**

Lau marin pupue  
sortzi marin trapue  
**(Mungia, Zeberio)**

Lau sirin pupu  
te lau marin trapu  
**(Sopela)**

Lau marien pupue  
ta sortzien trapue  
**(Zeberio)**

Negar eta negar dabilenean, min hartu duelako edo  
kafiadaka eta jaurtikadaka badabil treta hartzen  
duenean, orduan ondokoetariko bat esaten zaio

#### SANTI BURDUNTZI

Santi buruntzi  
ume gustiek iruntzi  
**(Zeberio)**

#### TARRAPATAN

Tarrapatan  
batxi lapatan  
andik eterri tte  
arto sopak yan  
**(Barrika)**

#### TXITXI MAKALA

Txitxi makala  
txio-txio ein  
eta mau-mau  
**(Zeberio)**<sup>1</sup>

Negar ta barre  
bier goxian kaka berde  
**(Mungia)**

Negar da barra  
kaka berde  
**(Zeberio)**

Beste hauetan umearen tasunak aipatzen dira,  
gehienetan kualitate eta ezaugarri onak nabarmentzeko.  
Kualitate txarrak agirian ipini baragarri uzteko eta  
besteen barregarri izateko, izena eta abizena esateko,  
e.a.

#### NESKATILA PISPOTA

Neskatilla pisporta  
buruan dosu kopeta  
sure soñeko yantziek  
iru dosena kortxeta  
**(Gatika)**

Selan deukok ixena?  
Okela gisena  
Apellidue?  
Juan barkillerue  
**(Zeberio)**

Selan usena?  
okela gixena  
Apellidu?  
Juan Barkilleru  
**(Barrika)**

#### MOTZA KATU KOROTZA

Motza, katu korotza  
**(Gatika)**

Motza katu korotza  
eperdien sotza  
punte sorrotza  
**(Zamudio)**

Laztanen Portalean  
dagos arbola bi  
bata da Maitetxo  
ta bestea Yosutxo  
**(Dima)**

#### FEDEA

Ser da Fedie?  
Bakidxoko aritzen dago arie  
**(Bakio)**

Ser da Fedea?

**GURE MUTILA**  
Gure mutille  
yateko opille  
**(Gatika)**

<sup>1</sup> Okela zati txikerra ebaki eta jan egiteko esaten da.

Abarka sarren edea  
(**Zeberio**)

## ZU ETA NI

Su te ni  
baliantek eta bi  
(**Gatika**)

Umeak astundu egiten direnetan, nor edo nogana joateko esaten zaie tardantza eskatzeko edo emateko, bide batez norberari baketan uzten diote.

**tardantze eskatu** (Berango, Jatabe); **tardantzie eskatu/emon** (Arrieta, Bakio); **tardantze eskatu** (Mungia); **tardantza eskatu/emon** (Lemoa) [**tardantza eskatu, tardantza eman**]

"Tardantzie emon, botatearren umie, botatearren noberan ondotik (**Arrieta**)" - (Tardantza eman, botatzearen umea, botatzearen norberaren ondotik)

"Tardantze eskatu ixu (**Berango**)" - (Tardantza eska ezazu)

"Soas amamagana ta, esayotzesu tardantza emoteko, denporea pase dien yoan da etorrien umeak, da norberak seoser ein dien, soloan edo, dana dalakoa (**Lemoa**)" (Zoaz amamagana eta, esaiozu tardantza emateko, denbora pasa dezan joan eta etorrian umeak, eta norberak zer edo zer egin dezan, soroan edo, dena delakoa)

Badira itaun erantzunen bidez egiten diren errexitatu ederrak, batzuen luzera ikusita, gogoan gordetzeko meritua behar da

## TXOTXO NON DOK AITA?

Juan tonto  
aitxe non dakosu?  
soluen  
ser eitxen?  
artotxuek eraitzan  
artotxue setako?  
ollotxuentzako  
ollotxue setako?  
arrotxie eitxeko  
arrotxie setako?  
abadiarentzako  
abadie setako?  
mesie emoteko  
mesie setako?

serure dxuteko  
serure setako?  
pastelak dxateko  
pastela setako?  
inyarra okitxeko  
(**Bermeo**)

Txotxo non dok aitxe?

Seruetan jaune  
Setan?  
Artotxue batzen  
Artotxue setako?  
Ollotxuentzako  
Ollotxue setako?  
Arrutzetxue eitxeko  
Arrutzetxue setako?  
Abadiarentzako  
Abadie setako?  
Mesie emoteko  
Mesie setako?  
Jesukristontzako  
Jesukristo setako?  
Geu salbetako  
(**Errigoitia**)

Mutil tonto  
jateko pronto  
aitxe nun dago?  
suluan  
Ser eraitzan?  
artua eraitzan  
artua setako?  
alluarentzako  
ollua setako?  
arrautzi eitxeko  
arrautzi setako?  
abadiarentzako  
abadie setako?  
mesia esateko  
mesia setako?  
purgotoixoko arimentzako  
(**Ondarroa**)

Bela bela jaune  
non dago aitxe jaune?  
seruetan  
setan?  
arto eraitzan  
artoa setako?  
olloantzako  
olloak setako?  
arrutzek eitxeko  
arrutzek setako?  
abadiarentzako  
abadie setako?  
mesia emoteko

mesia setako?  
serure ietako  
serue setako?  
pastelak yateko  
**(Mungia)**

Or godxen ser dau?  
edoidxek  
Emen beyen?  
arri kiskorrik  
Nire opiltxu erre da?  
baitxe jan be  
Nok jan deu?  
Txakurtxuek  
Txakurtxue nun dau?  
eskillaretan  
Eskillarak nun daus?  
suek erre  
Sue nun dau?  
urek amatau  
Ure nun dau?  
kortako idi gorridxek edan  
Kortako idi gorridxe nun dau?  
dirukin saldu  
Diruk nun daus?  
kartakin galdu  
Kartak nun daus?  
Kortako ormaseiñien usteldu  
**(Ereño)**

Fraide mondrongo  
dungo kandia  
ama nun da?  
urune eralgiten  
urune setako?  
olluentzako  
olluek setako?  
arrutze itteko  
arrutze setako?  
abadienzako  
abadie setako?  
mesie emoteko  
mesie setako?  
atzuentzako  
atzuek setako?  
aingeru bidxen erdidxen  
serua dxuteko  
**(Otxandio)**

**HAMABI APOSTULUAK**  
Esa bat gure jauna bera da bat  
berak salbako gayosak  
esa bi Erromako altarak bi  
gure jauna bera da bat  
berak salbako gayosak,  
esak iru, iru trinidadiaik iru  
Erromako altarak bi

gure jauna bera da bat  
berak salbako gayosak  
esa lau, lau lau ebanjelistiak lau  
iru, iru trinidadiaik iru  
Erromako altarak bi  
gure jauna bera da bat  
berak salbako gayosak  
esa bost, mandamentuak bost  
esa sei, sei argeleridxoak sei  
esa saspi, saspi sakramentuak saspi  
esa sortzi, sortzire tire seruen  
esa bederatzi, bederatzi ordenamentuek bederatzi  
esak amar, amar mandamentuek amar  
esak amaike, ...  
esak amabi, amabi apostuluek amabi  
...  
**(Arrieta)**  
Amabi apostoluak  
amar mandamentuak  
bederatzi ordenamentuak  
sortzirak dira seruan  
saspi sakramentuak  
sei argilarioak sei  
bost Jesukriston bost llaga bost  
lau ebanjelistia lau  
iru trinidadiaik iru  
Erromako altarak bi  
gure jaune bera da bat  
berak salbauko gaitus  
**(Fika)**

Amabi apostuluak  
amaike mille aingeruak  
amarra mandamentuak  
bederatzi ordenamentuak  
sortzira tira seruak  
saspi sakramentuak  
sei argiliridxua sei  
Jesukristoren bost llaga bost  
lau ebanjelistia lau  
iru trinidadiaik iru  
Erromako altara bi  
Gure jauna bera da bat  
berak salbauko gadxosak  
**(Ispaster)**

Amabi apostoluak  
amaika milla birjiña  
amar mandamentuak  
beratzi ordenamentuak  
sortzi dira seruak  
saspi sakramentuak  
sei argillariak sei  
Jesukristoren bost llaga bost  
lau ebanjelistiak lau  
iru trinidadiaik iru  
Erromako altarak bi

gure Jauna bera da bat  
gu salbatzeko jayo san  
**(Ondarroa)**

Esaik bat, esaik bat  
bat gure jauna bera da bat  
berak salbeko gaituesak

Esaik bi, esaik bi  
Erromako altarak bi  
gure jauna bera da bat  
berak salbeko gaituesak

Esaik iru, esaik iru  
iru trinidadia  
Erromako altarak bi  
gure jauna bera da bat  
berak salbeko gaituesak

Esaik lau, esaik lau  
lau ebanjelistiak lau  
iru trinidadia  
...

Esaik bost, esai bost  
Jesukriston bos yaga bost  
lau ebanjelistiua(k) lau  
...

Esai sei, esai sei  
sei, (...) sei  
Jesukriston bos yaga bost  
...

Esai saspi, esai saspi  
saspi sakramentuak saspi  
sei, (...) sei  
...

Esai sortzi, esai sortzi  
sortzira tira seruan  
saspi sakramentuak  
...

Esai bederatzi, bederatzi  
bederatzi ordenamentuak  
sortzira tira seruan  
...

Esaik amar, esaik amar  
amar mandamintxuak  
bederatzi ordenamentuak  
...

Esaik amaka, esaik amaka  
amaka milla angeruak  
amar mandamintxuak

...

Esaik amabi, esaik amabi  
ollarrak yoten dau munduan  
aingeru ederrak seruan  
auxe aingeru ederra  
entrege ber dotzet  
amabirjiñeari eskuetan  
**(Mungia)**

Amutil, esaik bat  
gure jauna bera dok bat  
berak salbauko gadxosak  
Amutil esaik bi  
bi argillak bi  
gure jauna bera dok bat  
berak salbauko gadxosak

Amutil esaik iru  
iru trinidadia  
bi argillak bi  
gure jauna bera dok bat  
berak salbauko gadxosak  
Amutil esaik lau  
lau ebanjelistak lau  
iru trinidadia  
.....

Amutil esaik bost  
Jesukriston bost llagak bost  
lau ebanjelistak lau  
.....

**(Otxandio)**

Esaik bat  
Jesukristo bera da bat<sup>2</sup>  
berak salbauko jayosak<sup>3</sup>  
Esaik bi  
Erromako altarak bi  
gure Jaune bera da bat  
berak salbauko jayosak

Esaik iru  
iru trinidadia  
Erromako altarak bi  
gure Jaune bera da bat  
berak salbauko jayosak  
Esaik lau  
lau ebanjelistiak lau  
iru trinidadia  
Erromako altarak bi  
gure Jaune bera da bat  
berak salbauko jayosak

Esaik  
Jesukristoren bost llagak bost  
lau ebanjelistiak lau

<sup>2</sup> "Gure Jaune bera da bat" ere bai.

<sup>3</sup> "yagosan" eta "jayosan" ere erabiltzen dira "jayosak" horren ordez.

iru trinidadiak iru  
 Erromako altarak bi  
 gure Jaune bera da bat  
 berak salbauko jayosak  
     Esaik sei  
     sei argileridxuak sei  
 Jesukristoren bost llagak bost  
     lau ebanjelistiak lau  
         iru trinidadiak iru  
         Erromako altarak bi  
         gure Jaune bera da bat  
         berak salbauko jayosak  
             Esaik saspi  
             aspirek sakramentua  
             sei argileridxuak sei  
 Jesukristoren bost llagak bost  
     lau ebanjelistiak lau  
         iru trinidadiak iru  
         Erromako altarak bi  
         gure Jaune bera da bat  
         berak salbauko jayosak  
             Esaik sortzi  
             sortzira(k) tira seruak  
             aspirek sakramentua  
             sei argileridxuak sei  
 Jesukristoren bost llagak bost  
     lau ebanjelistiak lau  
         iru trinidadiak iru  
         Erromako altarak bi  
         gure Jaune bera da bat  
         berak salbauko jayosak  
             Esaik bederatzi  
             bederatzi ordenamentua  
             sortzira(k) tira zeruak  
             aspirek sakramentua  
             sei argileridxuak sei  
 Jesukristoren bost llagak bost  
     lau ebanjelistiak lau  
         iru trinidadiak iru  
         Erromako altarak bi  
         gure Jaune bera da bat  
         berak salbauko jayosak  
             Esaik amar  
             amarra mandamentua  
             bederatzi ordenamentua  
             sortzira (k) tira zeruak  
             aspirek sakramentua  
             sei argileridxuak sei  
 Jesukristoren bost llagak bost  
     lau ebanjelistiak lau  
         iru trinidadiak iru  
         Erromako altarak bi  
         gure Jaune bera da bat  
         berak salbauko jayosak  
             Esaik amika  
             amaika mila aingeruak  
             amarra mandamentua  
             bederatzi ordenamentua  
             sortzira(k) tira zeruak  
             aspirek sakramentua  
             sei argileridxuak sei  
 Jesukristoren bost llagak bost  
     lau ebanjelistiak lau  
         iru trinidadiak iru  
         Erromako altarak bi  
         gure Jaune bera da bat  
         berak salbauko jayosak  
             Esaik amabi  
             amabi apostoluak  
             amaika mila aingeruak  
             amarra mandamentua  
             bederatzi ordenamentua  
             sortzira(k) tira zeruak  
             aspirek sakramentua  
             sei argileridxuak sei  
 Jesukristoren bost llagak bost  
     lau ebanjelistiak lau  
         iru trinidadiak iru  
         Erromako altarak bi  
         gure Jaune bera da bat  
         berak salbauko jayosak  
             Estok amairu badok amairu  
             ollarrak jo deu munduan  
             amabirjiñiari entregetetzegu  
             geure arimia eskuan  
             ondo ondo gorde dayala  
             eriotzako orduan  
             (**Ereñō**)

**DIRUA NON?**

Dirue nun?  
 kartetan galdu  
     kartak nun?  
     suek erre  
     sue nun?  
     urek amateu  
     ure nun?  
 kortako sesenak edan  
 kortako sesena nun?  
     diruaittik saldu  
     dirue nun?  
 kortako armaridxuan usteldu  
     (**Forua**)

Kukurruku nok ein yotzu?  
     aseridxe,  
     nun dau aseridxe?  
     mendidxe  
     nun dau mendidxe?  
     suek erre  
     sue nun dau?  
     urek amateu

ure nun dau?  
 kortako idiskotxuek edan  
 kortako idiskotxue nun dau?  
 diruekaitik saldu  
 diruek nun daus?  
 orma silloan usteldu  
**(Muxika)**

### **YONITZEN AMAANA**

Yonitzen amaana  
 emoteko ogi,  
 amak esayesten  
 emoteko giltze,  
 aitean giltze;  
 yonitzen aiteana  
 emoteko gitze,  
 aiteak esayesten  
 emoteko gantze,  
 txarriaren gantze;  
 yonitzen txarriana  
 emoteko gantze,  
 txarriak esayesten  
 emoteko esne,  
 beyaren esne;  
 yonitzen beyeana  
 emoteko esne,  
 beyeak esayesten  
 emoteko bedar,  
 munearen bedar;  
 yonitzen muneana  
 emoteko bedar,  
 muneak esayesten  
 emoteko iriti,  
 errementarien iriti;  
 yonitzen errementariana  
 emoteko iriti,  
 errementariak esayesten  
 emoteko pluma,  
 arrayaren pluma;  
 yonitzen arrayeana  
 emoteko pluma,  
 arrayak esayesten  
 emoteko axe,  
 itxasoan axe;  
 itxasoak niri axe,  
 nik arrayari axe,  
 arrayak niri pluma,  
 nik errementariri pluma,  
 erremetarik niri iriti,  
 nik muneari iriti,  
 muneak niri bedar,  
 nik beyeri bedar,  
 beyak niri esne,  
 nik txarriri esne,  
 txarrik niri gantze,  
 nik aiteri gantze,

aitek niri giltze,  
 nik amari giltze,  
 eta amak emoyesten ogi.  
**(Leioa)**

Ez dira gure behar honetakoak lotarako egiten diren kantuak; baina, kuman, zibiroan edo hankaren gainean umea kulunkatzen den artean, "Peru zapataria" esan geniezaiokeena sano arrakastatsua izan da:

Trin traun  
 Peru sapataridxe  
 ser ein yau?  
 pekatu  
 ausoko txakurre urketu  
**(Abadiño)**

Txin txaun Maridxe  
 Peru sapataridxe  
 ser egin yau?  
 pekatu  
 ausoko txakurre urketu  
 ixillopien beratu  
 labaganien siketu  
 elixara doyela  
 kakarralduek bilyurtu  
**(Abadiño)**

Din dan nor il da  
 Peru sapataridxe  
 ser egin yeu pekatu  
 eusoko txakurre urkatu  
 txixillu ganien beratu  
 talletu ganien siketu  
**(Arrieta)**

Peru sapataridxe  
 ser eginyau pekatu  
 ausoko txakurrek urketu te murketu  
 ori es da pekatu  
 baridxekuan koipetzu  
 oixe da pekatu  
**(Aulesti)**

Din dan  
 nor ilye?  
 Peru sapataridxe  
 ser inyeu?  
 pekatu  
 ausoko txakurre urketu  
 txixillupien beratu  
 erramara ganien siketu  
 ni noyela eleixara  
 kakarraldoak billurtu  
**(Axangiz)**

Din dan nor il ye? Peru sapataridxe ser egin yeu? pekatu eusoko txakurre urketu tellatu ganien sikutu ori beiñ espadeu eiñ eiñ yeitzegun parkatu <b>(Bakio)</b>	pekatu ausoko txakurra urkatu tella ganian sikutu aren emaste koitxaduak aik marmar pagatu <b>(Elantxobe)</b>
Din dan nor il ye Peru sapaterue ser egin deu pekatu eusoko txakurre urketu ori bada pekatu in bearko dxakola parkatu <b>(Bakio)</b>	Din dan nor il da? Peru sapataridxa ser egin dau pekatu? ausoko txakurra urkatu tella ganian sikutu aren emaste koitxaduak amar madai pagatu <b>(Elantxobe)</b>
Din daun nor il ye, Peru Sapataridxe, ser in yeu pekatu, eusoko txakurre urketu, txixe lupien sakatu, tellatu ganien sikutu <b>(Bakio)</b>	Dilin dalan bolera nor ilye? Peru sapataridxe ser inyeu? pekatu eusoko txakurre urketu ori esta pekatu errromada ganien sikutu <b>(Forua)</b>
Din dan nor il da? Peru sapatarie Ser egin dau pekatu? Ausoko txakurre urketu Txixe lupean beratu <b>(Berango)</b>	Din dan bolera nor ilye? Peru sapataridxe ser inyeu? pekatu eusoko txakurre urketu errama baten ganien sikutu <b>(Forua)</b>
Dinda nor il de? Periko sapaterue eleixaldera daroala kakarraldoak uxetu <b>(Derio)</b>	Tirrin tarran nor il de peru sapaterue ser ein deu eusoko txakurre urketu da telletuen sikutu <b>(Galdakao)</b>
Din don nor il de? Peru sapatarie ser egin deu? pekatu ausoko txakurre urkitu <b>(Dima)</b>	Din dan nor il da Peru sapatarie ser egin deu pekatu ausoko txakurrek urketu ori es dala pekatu ori bai dala pekatu <b>(Gatika)</b>
Din don nor il da? Peru sapataridxa ser egin dau?	Din dan kaleko nor il de? Txomin sapataridxe ser ein deu?

pekatu  
ausoko txakurrek urketu  
**(Ibarrangelu)**

Din dan nor il de  
Txomin sapaterue  
ser egin dau pekatu  
ausoko txakurre urkitu  
ori baño espada  
beako yako parkatu  
**(Igorre)**

din daun balandan  
se indosu pekatu  
ausoko txakurrek urketu  
txixillu ganean koipetu  
talletu ganetan siketu  
**(Jatabe)**

Din dan nor ila da  
Peru sapaterue  
ser in deu?  
pekatu  
eusoko txakurre urketu  
madari pian usteldu  
**(Larrabetzu)**

Din daun  
nor il da?  
Peru sapaterue  
ser ein deu pekatu  
txixe lurpian beratu  
**(Larrabetzu)**

Din dan nor il da  
Peru sapatarie  
ser in deu?  
Pekatu  
daroidela eleisara  
txitxi lupean sakatu  
**(Leioa)**

Din dan  
nor ilya?  
Peru sapataria  
ser inyau?  
pekatu  
ausoko txakurra urkatu  
**(Lekeitio)**

Din daun nor il de?  
Peru sapaterue  
Ser in deu pekatu?  
eusoko txakurre urketu  
txitxilupian beratu  
talletu ganian siketu  
**(Lezama)**

Din daun nor il ye  
Peru sapataridxe  
ser ein yeu pekatu  
ausoko txakurre urketu  
galdaran beratu  
txitxilupian sikatu  
ori esta pekatu  
**(Muxika)**

Din dan  
nor il de  
Txomin sapaterue  
ser ein dau  
txixelupian koipetzu  
manta sarrak garbitu  
txixeluganian sikitu  
**(Orozko)**

Din daun din daun  
Peru sapataridxe  
ser egin dau?  
pekatu  
ausoko txakurre urketu  
ori baño egin espau  
biako dxako parkatu  
**(Otxandio)**

Din daun belaun  
Peru sapataridxe  
ser egin yau pekatu  
ausoko txakurre urketu  
ori baño in espadau  
biarko dxako parkatu  
**(Otxandio)**

Din dan go din dan go  
nor il da?  
Peru sapataria  
seaitzik txakurre urketu?  
txixe posoan beratu  
tella ganean sikatu  
ori estala pekatu  
**(Sopela)**

Din daun nor il da?  
Peru sapataridxa  
ser egin dau pekatu?  
ausoko txakurre urketu  
ori es dala pekatu  
**(Zaldibar)**

Din dan  
nor il ye?  
Peru sapataridxa  
ser in yeu  
geur sortzi ogepien?

siriñe  
nok eñikoa?  
Pedro Moliook egiñe  
**(Zornotza)**

Din dan nor il da  
peru sapaterue  
ser in deu pekatu  
eusoko txakurre urketu  
**(Zamudio)**

Din dan nor il da  
Peru sapatarie  
ser egin deu pekatu  
ausoko txakurre urketu  
**(Zamudio)**

Din daun  
nor il de  
txomin sapaterue  
ser egin dau pekatu  
ausoko txakurre urkitu  
ori baño espada  
bearko yako parkatu  
**(Zeanuri)**

Din dan  
nor il de?  
Peru sapaterue  
ser in deu?  
ausoko txakurre urketu  
txixelupean beratu  
telleto ganean siketu  
**(Zeberio)**

Din dan  
nor il de?  
Peru sapaterue  
Ser in deu?  
pekatu  
ausoko txakurre urkitu  
txixelupien beratu  
tximiñepien siketu  
**(Zollo)**

Din daun  
nor il ye?  
Peru sapatarixe  
ser ein yau?  
pekatu  
ausoko txakurre urkatu  
ori es da pekatu  
urrengorako barkatu  
**(Ondarroa)**

Behin lotarako prest egonez gero, kantuak, errexitatuak edo kontuak entzunda, ameseta txarrak eduki ezteko "Santa Ines" edo "San Mames" horien izenean egineko errezu modukoak esan edo esanarazi egiten izan zaizkie:

**SANTA INES**  
Andra Santa Iñes  
bart ein yot ames  
ona bada bidxen partes  
da txarra bada beidxu aldrebes  
**(Arteaga)**

Santa Ines  
bart in dot ames  
ona bada bidxontzako  
txarra bada iñontza pes  
**(Elantxobe)**

Ama andra Santa Ines  
itxen bot ames  
ona bada bidxon partes  
eta txarra bada bidxok alrrebes  
**(Nabarniz)**

Santa Ines  
Bart ein yot ames  
ona bada bion partes  
Txarra bada  
juan bei bere bides  
**(Zaldibar)**

Santa Ines  
bart in dot ames,  
ona bada biontzat  
txarra bada bapes  
**(Zeanuri)**

Santa Ines  
es in ames  
ondo bada bai  
te txarto bada es  
**(Zollo)**

Aingeru guardakua  
lotara nua  
lotatik nator  
topa nituan  
iru angero  
bat burutik  
bi oñetatik  
amasantisimia  
nun dosu semia?  
kurutzian

untzes, arantzas beterik<sup>4</sup>  
au egunian  
iru bidar esaten dabenak  
estau ixango  
infernuan parterik  
espada seruan  
amandre Santa Iñes  
bart ein yot ames  
ona bada  
bixon partes  
txarra bida  
dule bere bides  
**(Ondarroa)**

### SAN MAMES

San Mames,  
bart inyot ames,  
ona bada bidxon partes,  
txarra bida badoa oñes  
**(Bakio)**

San Mames, San Mames  
bart ein dot ames  
ondo ein badot bion partes  
txarto in badot dola alrrebes  
**(Berango)**

San Mames  
es egin ames  
ona bada bai  
ta txarra bida es  
**(Derio)**

San Mames  
itxen badot ames  
ona bada bidxon partes  
da txarra bida jun didxen iges  
**(Forua)**

Ene Samames,  
bart ein dot ames,  
ona bada biontzat,  
txarra bida baperes  
**(Jatabe)**

Samames bart in yot ames  
ona bada bidxen partes  
txarra bida baperes  
**(Meñaka)**

San Mames, eiñ ames  
ona bada bai, txarra bida es  
**(Mungia)**

San Mames  
eseixu eiñ ames  
ona bada bai  
te txarra bida es  
**(Mungia)**

San Mames  
itxen badot ames  
ona bada bidxon partes  
da txarra bida jun didxen iges  
**(Nabarniz)**

San Mames bart in dot ames  
amesa da gausa soroa  
esiñ eskondu littikela  
jibo dekon atzoa  
**(Urduliz)**

(segituko dut)

<sup>4</sup> Informatzailearen alabak "josirik" eman du "beterik"  
horren ordez.